

Ikastolen Etxean, Abenduaren 15ean.

## IKASTOLEN ELKARTEAREN PRENTSA OHARRA

### "Ikastolok emakumeen aurkako eraso eta jazarpenaren aurrean irmotasuna eta konpromisoa berresten dugu"

*Azken egunetan Urrentxindorra eta Azkue Ikastoletan gertatutako jarrera matxisten inguruan egin diren salaketei zilegitasun guztia ematen diegu eta Ikasle hauen segurtasuna eta ongizatea da gure lehentasuna.*

Ikastolen Elkartetik, argi eta garbi adierazi nahi dugu **ez dugula emakumeen aurkako erasorik, jazarpenik edo biolentziarik onartzen, ezta onartuko ere gure ikastoletan.** Gure ikasleen, eta emakumezko ororen duintasunaren eta errespetuaren aurka doan edozein jokabide guztiz onartezina da.

Azpimarratu nahi dugu indarkeria hori ez da ekintza isolatu bat, gure gizartea egituratzen duten jokabide esplizituen, mezu normalizatuen eta sinbolikoen sare bat baizik, emakumeek gizonekiko duten menpekotasunari eusteko eta indarrean dagoen sistema heteropatriarkalak ezarritako mugak urratzen dituen gorputz, eredu edota portaerarik ez izateko.

Urrentxindorra Ikastolako emakumezko ikasle talde batek eta Lekeitio ikastolako ikasle ohi batek egindako salaketa publikoei dagokionez, Ikastolen Elkartek **salatutako gertaerak irmoki salatzen ditugula adierazi nahi dugu salaketa hauei zilegitasun guztia ematen diegula** argi utzi.

**Ikasle hauen segurtasuna eta ongizatea da gure lehentasuna eta Ikastola hauek egoeren berri izan bezain pronto neurriak hartu dituztela berretsi nahi dugu.** Beti ere, emakume hauen eskubideak eta ongizatea babesteko.

Bestalde, argi utzi nahi dugu Ikastolen Elkartek eta hau osatzen duten ikastolek **protokolo zehatz bat dugula emakumeen aurkako eraso, jazarpen edo biolentziaren aurrean.** Halako egoerak antzematen ditugun kasu guztietan, salaketa egon ala ez, Ikastolok neurri zorrotz eta zehatzak hartzen ditugu ikastola komunitatea osatzen duten emakume guztien

segurtasuna eta ongizatea bermatzeko. Hori horrela, eraso jasan dutenei, beraiek hala nahi badute, **ongizate emozionalerako zein beharrezkoak diren prozeduretan laguntzeko baliabideak eskainiko dizkiogu.**

Era berean, **emakume hauekiko, eta haien familiekiko eta inguruekiko babesa eta hurbiltasuna adierazi nahi dugu.** Emakumeentzako hezkuntza ingurune seguru eta edozein eraso-motatik libre mantentzeko konpromisoa eta neurriak hartu ditugula berresten dugu.

Bestalde, **Ikastoletan edonolako jazarpen edo eraso mota jasan duten pertsonei, edo jokabide desegoki baten lekuko izan direnei, beraien ikastoletako Zuzendaritza organoekin edo Ikastolen Elkartearekin berehala harremanetan jartzeko deia egiten diegu.** Jazarpeneko, indarkeriako edo diskriminazioko edozein egoeraren berri emateko idatzi, [salaketak@ehi.ikastola.eus](mailto:salaketak@ehi.ikastola.eus) helbide elektronikora. Salaketa horiek ahalik eta azkarren erantzungo dira.

Gure ikasleen babesa gure lehentasuna da, eta haien ongizatea eta segurtasuna bermatzeko beharrezko baliabide guztiak jartzen ditugu. Errespetuan, berdintasunean, eta askatasunean oinarritutako hezkuntzaren aldeko konpromisoa berresten dugu, eta halako gertakariak berriro ez errepikatzeko beharrezko neurri guztiak aurrera eramateko konpromisoa. Indarkeria matxista eta homofobia emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazpenik bortitzena da, eta komunitate gisa beste behin ere indarkeria mota honen aurkako jarrera adierazi nahi du Ikastolen Elkarteak.

### **Elkartasuna eta aitortza**

Bukatzeko, Ikastolen Elkartetik gure elkartasun eta laguntza osoa helarazi nahi diegu bai Azkue Ikastolari bai Urrentxindorra Ikastolari. Aitortza berezia ere egin nahiko genuke gertaera hauek kudeatzeko erakutsitako ardura eta zorrotasunagatik. Beren jardunari esker, ikasleen segurtasuna eta ongizatea lehenetsi dira uneoro.

Era berean, eskertu eta aitortu nahi dugu ikastoletan hezkuntza-komunitatearen zaintzan egiten den lan pedagogikoa eta horrelako egoeren aurrean erakutsitako konpromisoa. Ikastolekin elkarlanean jarraituko dugu gure komunitatean segurtasuna, errespetua eta justizia bermatzen jarraitzeko.

***Ikastolen Elkarteko Artezkaritza Kontseilua***

## **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE IKASTOLEN ELKARTEA**

### **"Desde las ikastolas manifestamos nuestra firmeza y compromiso frente a la violencia y el acoso contra las mujeres"**

*Respaldamos plenamente las denuncias realizadas en los últimos días, en las ikastolas Urrentxindorra y Azkue. La seguridad y el bienestar de nuestras alumnas es nuestra máxima prioridad.*

Desde Ikastolen Elkartea queremos dejar claro que no aceptamos ni aceptaremos ningún tipo de violencia, acoso o agresión contra las mujeres en nuestras ikastolas. Cualquier conducta que atente contra la dignidad y el respeto de nuestras alumnas o de cualquier mujer es completamente inaceptable.

Queremos subrayar que esta violencia no es un acto aislado, sino el resultado de una red de comportamientos explícitos, mensajes normalizados y símbolos estructurales que perpetúan la subordinación de las mujeres a los hombres y refuerzan los límites impuestos por el sistema heteropatriarcal vigente.

En relación con las denuncias públicas realizadas por un grupo de alumnas de Urrentxindorra Ikastola y por una antigua alumna de Azkue Ikastola, desde Ikastolen Elkartea condenamos firmemente los hechos denunciados y reiteramos nuestro pleno apoyo y legitimidad a las denuncias realizadas.

La seguridad y el bienestar de estas alumnas son nuestra prioridad, y queremos reafirmar que ambas ikastolas tomaron medidas inmediatas en cuanto tuvieron conocimiento de los hechos, siempre con el objetivo de proteger los derechos y el bienestar de las afectadas.

Por otro lado, queremos destacar que tanto Ikastolen Elkartea como las ikastolas que la conforman cuentan con un protocolo firme para abordar casos de violencia, acoso o agresión contra las mujeres. En todas las situaciones que detectamos, haya denuncia formal o no, las ikastolas adoptan medidas estrictas para garantizar la seguridad y el bienestar de todas las mujeres de nuestra comunidad educativa.

Asimismo, expresamos nuestro apoyo y cercanía hacia estas mujeres, sus familias y su entorno. Reafirmamos nuestro compromiso de mantener un entorno educativo seguro y

libre de cualquier tipo de agresión. Seguiremos trabajando para prevenir, evitar y erradicar cualquier comportamiento que atente contra la integridad de nuestra comunidad. Por ello se ofrecerán los recursos necesarios para garantizar el bienestar emocional de las personas afectadas y apoyar los procedimientos necesarios, siempre que así lo deseen.

Hacemos un llamamiento a todas las personas que hayan sufrido algún tipo de acoso o agresión, o que hayan sido testigos de comportamientos inapropiados, a que se pongan en contacto de inmediato con los equipos directivos de sus ikastolas o con Ikastolen Elkartea. Para comunicar cualquier situación de acoso, violencia o discriminación, pueden escribir a la dirección de correo electrónico: **salaketak@ehi.ikastola.eus**. Estas denuncias serán atendidas con la máxima diligencia.

La protección de nuestro alumnado es nuestra prioridad, y ponemos a su disposición todos los recursos necesarios para garantizar su bienestar y seguridad. Reafirmamos nuestro compromiso con una educación basada en el respeto, la igualdad y la libertad, y tomaremos todas las acciones necesarias para evitar que se repitan hechos como estos. La violencia machista y homófoba es la expresión más extrema de la desigualdad entre mujeres y hombres, y como comunidad queremos reiterar una vez más nuestra postura firme contra este tipo de violencia.

### **Solidaridad y reconocimiento**

Finalmente, desde Ikastolen Elkartea queremos expresar nuestra solidaridad y apoyo total tanto a Urrentxindorra Ikastola como a Azkue Ikastola. Queremos realizar un reconocimiento especial a la responsabilidad y rigor que han demostrado en la gestión de estos problemas, priorizando en todo momento la seguridad y el bienestar de su alumnado, especialmente en situaciones de vulnerabilidad.

Asimismo, agradecemos y reconocemos la labor pedagógica que se realiza en nuestras ikastolas y el compromiso demostrado frente a situaciones de esta naturaleza. Continuaremos trabajando junto con las Ikastolas para garantizar la seguridad, el respeto y la justicia en nuestra comunidad.

***Consejo Rector de Ikastolen Elkartea.***